

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektuaren arrakasta ziurtatzeko, bakoitzaren abileziak kontuan hartu behar ditugu. Hala ere, gure lanpostuetan arazoren bat izango bagenu, gure taldekideen sostengua izango genuke aurrera jarraitu ahal izateko.

Gure enpresaren arrakasta lortzeko gure bezeroekiko izango dugun harremana funtsezkoa da. Gure klaseak partikular normalak ez izateko, oso garrantzitsua da gure zerbitzua dedikatua eta oso gertukoa izatea. Horretarako, gure klaseei egokitzapen bereziak ezarriko dizkiegu, esaterako, gure bezeroekiko dugun aurrez aurreko harremana oso pertsonala eta gertukoa izan behar da.

Gure klaseei egokitzapenak egin behar zaizkie, baina gu ez gara horretan adituak. Gure lana ahalik eta ondoen egiteko, diagnostikoa duten haurrekin izango dugun harremana ondo kudeatzen lagunduko diguten ikastaro batzuetara joango gara. Bertan, bostok ikastaro berdinak jasoko ditugu denok gauza berdinetan espezializatzeko. Aurreko ataletan aipatu bezala, autismoa, AFN+H eta dislexia tratatuko ditugu.

Hau guztia eginda, oso garrantzitsua da gure proiektua gurasoei ezagutaraztea; horretarako, Urretxu-Zumarragako hainbat ikastetxeekin jarriko gara harremanetan. Ikastetxeekin harremanetan jarri ostean, diagnostiko bat duten haurren gurasoei hitz egiteko eskatuko diegu, gure proiektuaren onurak jaso ditzaten. Urretxu-Zumarragan bost ikastetxe daude guztira: Urretxu-Zumarraga ikastola, Gainzuri, Jose Maria Iparragirre institutua, La Salle Zumarraga eta UGLE.

Gure proiektuak ondo funtzionatzeko, antolaketa ona izatea funtsezkoa da. Gure bezeroen ordutegien antolaketa eta klaseen funtzionamendua ondo kudeatzea oso garrantzitsua da. Ikasturtearen egutegia finkatzea ere ezinbestekoa da gure proiektuaren antolaketa ziurtatzeko.

Gure enpresako langile bakoitzak abilezia paregabe batzuk dauzka, eta hori aprobetxatuko dugu arrakasta ziurtatzeko. Bakoitzaren indarguneak analizatu ondoren, lana horrela banatzea erabaki dugu: Anek eta Libek antolaketa eramango dute. Antolakuntzako lan honetan ordutegiak finkatzea, gurasoen zalantzak argitzea, ikasturtearen egutegia antolatzea eta dena behar den bezala joatea bermatzea da lana. Izaera ordenatua dutenez eta arduratsuak direnez, ez dago beraiek baino pertsona aproposagorik lan hau burutzeko.

Eider eta June berriz, jendearekin harremanetan jartzen eta komunikatzen ondo moldatzen direnez, gure zerbitzua aurrera eramán ahal izateko, harremana izan behar dugun elkarteekin jarriko dira kontaktuan. Rol hau oso garrantzitsua da gure zerbitzuak arrakasta izateko, izan ere, harreman hauekin gure zerbitzua ezagutaraztea lortuko dugu. Kontaktua Urretxu-Zumarragako ikastetxeekin, enpresekin eta Urretxuko eta Zumarragako udalekin izango dugu.

Gure enpresaren diru kontuak Olaiak eramango ditu. Kalkuluak egiterako garaian ondo antolatzen den eta akatsik egingo ez duen pertsona bat funtsezkoa da. Olaiak zenbakiak eta kalkuluak ondo daramatzanez, bera da gure taldetik rol hau egokien beteko duena.

